



AMAIERAKO TXOSTENA

2024KO MARTXOA

**“EPIDEMIOLOGIAKO ZERBITZU
ESPEZIALIZATUAK, GIPUZKOAKO INGURUMEN
GUNEA MARTXAN EGON DEN LEHENENGO
LAU URTEETAN (2020/04-HH-ZE)”**

1.ILDOA:

**AIREKO KUTSATZAILE ATMOSFERIKOEKIKO
ESPOSIZIOAREN EBALUAZIOA**

Jesús Ibarluzea Maurologoitia

Ikertzaile nagusia

Ingurumen Epidemiologiako eta Haur Garapeneko Ikerketa Taldea

**CIBERESP (Sareko Ikerketa Biomedikorako, Epidemiologiarako eta Osasun
Publikorako Zentroa, Carlos III.a Osasun Institutua)**

EDUKIAK

LABURPENA	1
1. SARRERA	3
1.1. Material partikulatua (PM)	4
1.2. Metalak	5
1.3. Hidrokarburo Aromatiko Poliziklikoak (HAPak)	6
1.4. Dioxinak eta furanoak	7
1.5. Bifenilo polikloratuak (PCBak).....	8
1.6. Baliokidetasun toxikoen faktoreak (TEF) eta baliokide toxikoak (TEQ)	9
1.7. Egungo legedia	10
2. HELBURUAK	12
3. METODOAK	13
3.1. Azterketa-eremua	13
3.2. Aireko kutsatzaileen bilketa.....	15
3.2.1. <i>Laginketa-egutegia</i>	18
3.3. Analisi-metodoa	18
3.3.1. <i>PM_{2.5}</i>	18
3.3.2. <i>Metalak</i>	19
3.3.3. <i>Hidrokarburo Aromatiko Poliziklikoak</i>	20
3.3.4. <i>PCDD/F eta PCBak</i>	20
3.3.5. <i>PALAS ekipoen bidez jasotako PM₁, PM_{2.5} eta PM₁₀ partikulak</i>	21
3.4. Analisi estatistikoa	22
4. EMAITZAK: 2020KO EKAINETIK 2023KO IRAILERA	24
4.1. <i>PM_{2.5}</i>	24
4.2. <i>PM_{2.5} partikulei lotutako traza-elementuak</i>	27
4.3. Hidrokarburo Aromatiko Poliziklikoak (HAPak)	39
4.4. <i>PCDD/F eta PCBak</i>	48
4.4.1. <i>Kaptazio aktibo bidez jasotako PCDD/F eta PCBak</i>	48
4.4.2. <i>Kaptazio pasibo bidez jasotako PCDD/F eta PCBak</i>	51
4.4.3. <i>Kaptazio aktiboaren eta pasiboaren bidez lortutako emaitzen konparaketa</i>	55
4.5. <i>PALAS ekipoen bidez zehaztutako PM₁, PM_{2.5} eta PM₁₀ partikulak</i>	57
5. GIGEBI MARTXAN JARRI AURREKO ALDIKO ETA GIGEBI MARTXAN JARRI ONDORENGO ALDIKO ERANTZUNEN KONPARAKETA	60
5.1. <i>PM_{2.5}</i>	61
5.1.1. <i>PM_{2.5} partikulen aldaketaren ebaluazioa, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian, BACI metodologiaren bidez</i>	66
5.2. <i>PM_{2.5} partikulei lotutako traza-elementuak</i>	69

5.2.1. BACI metodologiaren bidezko konparazioa PM _{2.5} partikulei lotutako traza-elementuentzat	80
5.3. Hidrokarburo Aromatiko Poliziklikoak (HAPak)	86
5.4. PCCD/F eta PCBak	95
6. ONDORIOAK	99
BIBLIOGRAFIA	100

ERANSKINAK

- 1.1. ERANSKINA. TEFak
- 1.2. ERANSKINA. PM_{2.5}, metalen eta HAPen analisisien emaitzen txostena, pdf formatuan
- 1.3. ERANSKINA. PM_{2.5}, metalen eta HAPen analisisien emaitzen txostena, Excel formatuan
- 1.4. ERANSKINA. PCDDF eta PCBen analisisien emaitzen txostena, pdf formatuan
- 1.5. ERANSKINA. PCDDF eta PCBen analisisien emaitzen txostena, Excel formatuan
- 1.6. ERANSKINA. PALAS ekipoekin neurtutako PM₁, PM_{2.5} eta PM₁₀ partikulen analisisien emaitzen txostena
- 1.7. ERANSKINA. PALAS ekipoekin neurtutako PM₁, PM_{2.5} eta PM₁₀, partikulen analisisien emaitzak, Excel formatuan

TAULEN-AURKIBIDEA

1. Taula. 102/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa	10
2. Taula. Airearen kalitaterako OMEren gidaren mailak	11
3. Taula. Laginketa-egutegia.....	18
4. Taula. PM _{2,5} partikulen batez besteko kontzentrazioa (µg/m ³) 2021eko urtarrila-abendua eta 2022ko urtarrila-abendua aldian.	25
5. Taula. PM _{2,5} aren eta analizaturiko elementu edo konposatu bakoitzaren kuantifikazio-mugak (LOQ), udalerrri bakoitzean kuantifikazio-mugaren azpitik dauden datuen ehunekoarekin (%) batera, azterketaren aldian (2020ko ekaina-2023ko iraila).	26
6. Taula. Eraginpeko eremuan (Lasarte vs. Usurbil) eta kontrol-eremuan (Ordizia vs. Urretxu) analizaturiko kutsatzaile-mailen arteko konparaketa, eta eraginpeko eremuaren eta kontrol-eremuaren arteko konparaketa, 2020ko ekainetik 2023ko irailera bitarteko aldian. Estatistikoki esanguratsuak diren p-balioak (<0.05) letra lodian daude adierazita.....	29
7. Taula. Modu aktiboan jasotako PCDD/F eta dl-PCBen kontzentrazioen (fg TEQ/m ³) balio maximoak, minimoak, batez bestekoak (%95KT) eta batez besteko geometrikoak (BG) (%95KT), 2020ko ekaina 2023ko martxoa bitartean.....	51
8. Taula. Modu pasiboan jasotako PCDD/F eta dl-PCBen kontzentrazioen (fg TEQ/m ³) balio maximoak, minimoak, batez bestekoak (%95KT) eta batez besteko geometrikoak (BG) (%95KT), 2020ko ekaina 2023ko martxoa bitartean.....	54
9. Taula. Kaptazio aktibo eta pasibo bidez jasotako PCDD/F eta dl-PCBen kontzentrazioen batez bestekoak (fg TEQ/m ³) Usurbilen (eraginpeko-eremua) eta Urretxun (kontrol-eremua), 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	56
10. Taula. Palas ekipoeekin kuantifikatutako PM ₁ , PM _{2,5} eta PM ₁₀ partikulen kontzentrazioen batez bestekoak (%95KT) (µg/m ³) 2020ko abendua eta 2023 iraila bitartean, Usurbilen (eraginpeko-eremua) eta Urretxun (kontrol-eremua).	59
11. Taula. PM ₁ , PM _{2,5} eta PM ₁₀ partikulen kontzentrazioen batez bestekoak (%95KT) (µg/m ³) 2021eko urtarrila-abendua, 2022ko urtarrila-abendua eta 2023ko urtarrila-iraila aldietan.....	59
12. Taula. PM _{2,5} kontzentrazioak 102/2011 Errege Dekretuak ezarritako 20 µg/m ³ -ko balioa (2020ko irailetik aurrera ezarria), eta OMEk gomendaturiko 10 µg/m ³ (2021 arte gomendatutakoa) eta 5 µg/m ³ (2021tik aurrera gomendatutakoa) gainditu zuten laginen ehunekoa, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian.	61
13. Taula. PM _{2,5} partikulen batez besteko balioa(µg/m ³) 2018, 2019, 2020, 2021, 2022 eta 2023ko urtarrila-iraila aldian.	62
14. Taula. PM _{2,5} , eta atxikitako elementu eta HAPen kontzentrazio balio maximoak, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian. Gorriz, ondorengo aldian maximoa altuagoa izan zen kasuetan.	64
15. Taula. PM _{2,5} , eta atxikitako elementu eta HAPen kontzentrazioen batez besteko balioak (%95KT), aztertutako 4 udalerrietan, GIGEBI martxa jarri aurreko eta ondorengo aldian. Balio esanguratsuki handiagoak laranja adierazi dira, eta esanguratsuki txikiagoak berdez.....	65
16. Taula. PM _{2,5} partikulen deskriptiboak azterlaneko lau udalerrietan 2018ko urtarrila-2022ko iraila bitartean. Min = minimoa; Max = maximoa; IQR = Rango intercuartílico.....	66

17. Taula. Estatistiko deskribatzaileak. $PM_{2.5}$ partikulen kontzentrazioa $\mu\text{g}/\text{m}^3$ -tan udalerraren arabera (Lasarte, Usurbil, Ordizia eta Urretxu), 2018ko urtarrila 2022ko iraila bitartean. Min = minimoa; Max = maximo; IQR = Rango intercuartílico.	67
18. Taula. Kontraste estatistikoaren emaitzak, BACI.....	69
19. Taula. Metalen eta HAPen ehunekoen batez bestekoak (%95KT), aztertutako lau udalerrietan, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian. Balio esanguratsuki handiagoak laranja adierazi dira, eta esanguratsuki txikiagoak berdez.	79
20. Taula. Partikulei lotutako elementuen deskriptiboak azterlaneko lau udalerrietan, 2018ko urtarrila 2022ko iraila bitartean. Min = minimoa; Max = maximoa; IQR = Rango intercuartílico.	80
21. Taula. Kontraste estatistikoaren erantzunak, BACI $PM_{2.5}$ partikulei loturiko elementuentzat	85
22. Taula. PCDD/F eta dl-PCBen kontzentrazioen (fg TEQ/ m^3) balio maximoak, minimoak, batez bestekoak (%95KT) eta batez besteko geometrikoak (BG) (%95KT), 2017ko iraila 2023ko iraila bitartean, Usurbilen (eraginpeko-eremua) eta Urretxun (kontrol-eremua). Balio esanguratsuki handiagoak laranja adierazi dira, eta esanguratsuki txikiagoak berdez.	98

GRAFIKOEN-AURKIBIDEA

1. Grafikoa. Aireko PM _{2.5} kontzentrazioa ($\mu\text{g}/\text{m}^3$) 2020ko ekainetik 2023ko irailera bitartean. Errege Dekretuan jasotako eta OMEk gomendatutako muga-balioak adierazten dira.	24
2. Grafikoa: Selenioaren kontzentrazioa Usurbilen (ng/m^3), 2020ko ekaina-2023ko iraila bitartean.....	27
3. Grafikoa. Metalen korrelazioak udalerrriaren arabera.....	30
4. Grafikoa. Arsenikoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	31
5. Grafikoa. Barioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.	31
6. Grafikoa. Kadmioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	32
7. Grafikoa. Zerioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.	32
8. Grafikoa. Zinkaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.	33
9. Grafikoa. Kobaltoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	33
10. Grafikoa. Kobrearen kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	34
11. Grafikoa. Kromoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	34
12. Grafikoa. Kromo (VI)aren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	35
13. Grafikoa. Burdinaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	35
14. Grafikoa. Manganesoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	36
15. Grafikoa. Merkurioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	36
16. Grafikoa. Nikelaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	37
17. Grafikoa. Paladioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	37
18. Grafikoa. Berunaren kontzentrazioa airean ($\mu\text{g}/\text{m}^3$) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	38
19. Grafikoa. Selenioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	38

20. Grafikoa. Banadioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	39
21. Grafikoa. Azenaftenoarean kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	40
22. Grafikoa. Azenaftilenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	40
23. Grafikoa. Antrazenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	41
24. Grafikoa. Benzo(a)antrazenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	41
25. Grafikoa. Benzo(a)pirenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	42
26. Grafikoa. Benzo(b)fluorantenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	42
27. Grafikoa. Benzo(g,h,i)perilenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	43
28. Grafikoa. Benzo(k)fluorantenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	43
29. Grafikoa. Krisenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	44
30. Grafikoa. Dibenzo(a,h)antrazenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	44
31. Grafikoa. Fenantrenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	45
32. Grafikoa. Fluorantenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	45
33. Grafikoa. Fluorenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	46
34. Grafikoa. Indeno(1,2,3-c,d)pirenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	46
35. Grafikoa. Naftalenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	47
36. Grafikoa. Pirenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2020ko ekaina eta 2023ko iraila bitartean.....	47
37. Grafikoa. PCDDen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2020ko ekaina 2023ko martxo bitartean. Kaptazio aktiboa.....	48
38. Grafikoa. PCDFen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2020ko ekaina 2023ko martxo bitartean. Kaptazio aktiboa.....	49
39. Grafikoa. dl-PCBen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2020ko ekaina 2023ko martxo bitartean. Kaptazio aktiboa.	49

40. Grafikoa. PCDD/F eta dl-PCBen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2020ko ekaina 2023ko martxoa bitartean. Kaptazio aktiboa.	50
41. Grafikoa. PCDDen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2020ko ekaina 2023ko martxoa bitartean. Kaptazio pasiboa.	52
42. Grafikoa. PCDFen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2020ko ekaina 2023ko martxoa bitartean. Kaptazio pasiboa.	52
43. Grafikoa. dl-PCBen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2020ko ekaina 2023ko martxoa bitartean. Kaptazio pasiboa.	53
44. Grafikoa. PCDD/F eta dl-PCBen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2020ko ekaina 2023ko martxoa bitartean. Kaptazio pasiboa.	53
45. Grafikoa. PM ₁ (urdina), PM _{2.5} (laranja) eta PM ₁₀ (grisa) (µg/m ³) partikulen kontzentrazioak Usurbilen (A) eta Urretxun (B) 2020ko abendutik 2023 irailera bitartean. 102/2011 Errege Dekretuak eta OMEk ezarritako urteko balio-mugak adierazten dira.	58
46. Grafikoa. Aireko PM _{2.5} kontzentrazioa (µg/m ³) 2017ko irailetik 2023ko irailera bitartean. 63	
47. Grafikoa. PM _{2.5} partikulen joera denboran zehar aztertutako bi eremuetan, 2018ko urtarrila eta 2020ko iraila bitartean.	67
48. Grafikoa. PM _{2.5} partikulen batez bestekoa GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian eremu bakoitzean.	68
49. Grafikoa. Artsenikoaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	70
50. Grafikoa. Barioaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	70
51. Grafikoa. Kadmioaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	71
52. Grafikoa. Zerioaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	71
Figura 53. Zinkaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean. . 72	
54. Grafikoa. Kobaltoaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	72
55. Grafikoa. Kobrearen kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	73
56. Grafikoa. Kromoaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	73
57. Grafikoa. Burdinaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	74
58. Grafikoa. Manganesoaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	74
59. Grafikoa. Merkurioaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	75

60. Grafikoa. Nikelaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	75
61. Grafikoa. Paladioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	76
62. Grafikoa. Berunaren kontzentrazioa airean ($\mu\text{g}/\text{m}^3$) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	76
63. Grafikoa. Selenioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	77
64. Grafikoa. Banadioaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	77
65. Grafikoa. Arsenikoaren, barioaren, kadmioaren, zerioaren, kromoaren, kobaltoaren, kobreakaren, burdinaren, berunaren, manganesoaren, merkurioaren, nikelaren, paladioaren, selenioaren, banadioaren eta zinkaren joera denboran zehar aztertutako bi eremuetan, 2018ko urtarrila eta 2020ko iraila bitartean.	81
66. Grafikoa. $\text{PM}_{2.5}$ partikulei lotutako elementuen batez bestekoa GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldiran eremu bakoitzean.	84
67. Grafikoa. Azenaftenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	87
68. Grafikoa. Azenaftilenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	87
69. Grafikoa. Antrazenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	88
70. Grafikoa. Benzo(a)antrazenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	88
71. Grafikoa. Benzo(a)pirenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	89
72. Grafikoa. Benzo(b)fluorantenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	89
73. Grafikoa. Benzo(g,h,i)perilenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	90
74. Grafikoa. Benzo(k)fluorantenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	90
75. Grafikoa. Krisenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	91
76. Grafikoa. Dibenzo(a,h)antrazenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	91
77. Grafikoa. Fenantrenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	92
78. Grafikoa. Fluorantenoaren kontzentrazioa airean (ng/m^3) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	92

79. Grafikoa. Fluorenoaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.....	93
80. Grafikoa. Indeno(1,2,3-c,d)pirenoaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.....	93
81. Grafikoa. Naftalenoaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.....	94
82. Grafikoa. Pirenoaren kontzentrazioa airean (ng/m ³) 2017ko iraila eta 2023ko iraila bitartean.	94
83. Grafikoa. PCDDen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2017ko iraila 2023ko iraila bitartean.	95
84. Grafikoa. PCDFen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2017ko iraila 2023ko iraila bitartean.	96
85. Grafikoa. dl-PCBen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2017ko iraila 2023ko iraila bitartean.....	96
86. Grafikoa. PCDD/F eta dl-PCBen kontzentrazioen baturaren denbora-seriea Urretxun (urdina) eta Usurbilen (laranja), 2017ko iraila 2023ko iraila bitartean.....	97

IRUDIEN-AURKIBIDEA

1. Irudia. Azterketa-eremua	13
2. Irudia. Eraginpeko-eremua, Lasarte eta Usurbil.	14
3. Irudia. Kontrol-eremua, Ordizia y Urretxu.....	14
4. Irudia. Usurbilen instalatutako DIGITEL DHA-80 kaptadore aktiboa [A] eta PCDD/F eta PCB kaptadore pasiboak [B]. Urretxun jarritako DHA-80 kaptadore aktiboa eta PCDD/F eta PCB kaptadore pasiboak [C].	15
5. Irudia. PM_{10} , $PM_{2.5}$ eta PM_{10} partikulak kuantifikatzeko PALAS kaptadoreak, kontrol eremuan (Urretxu) [A] eta eraginpeko-eremuan (Usurbil) [B].	16

LABURPENA

Ikerketa-ildo honen helburua airearen kalitatea eta horrek eraginpean dagoen eremuan (Usurbil eta Lasarte) eta kontrolgunean (Urretxu eta Ordizia) izan duen bilakaera ebaluatzea da, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen parte den Energia Balorizazioko Instalazioa (GIGEBI) martxan jarri ondoren, 2020ko ekainetik 2023ra irailera bitartean. Guztira, PM_{2.5} partikulen 3922 zehaztapen egin dira, metalen 3773 zehaztapen, HAPen 3717 zehaztapen eta modu aktiboan jasotako 143 dioxina, furano eta PCB (PCDD/F eta PCB) zehaztapen eta modu pasiboan jasotako 12 PCDD/F eta PCB zehaztapen. Gainera, Cr (VI)aren 800 zehaztapen eta PM₁ eta PM₁₀ partikulen 1719 zehaztapen ere egin dira.

Aztertutako aldian, PM_{2.5} partikulen batez besteko mailak 8.96 µg/m³, 9.06 µg/m³, 9.51 µg/m³ eta 9.38 µg/m³ izan ziren Lasarten, Usurbilen, Ordizian eta Urretxun, hurrenez hurren. Maila horiek legezko mugaren azpitik zeuden (25 µg/m³, 102/2011 Errege Dekretua), baina Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutakoaren gainetik, zeina 2021. urtean 10 µg/m³ izatetik 5 µg/m³ izatera pasa zen. Metalei dagokienez, araturiko elementuak (beruna, artsenikoa, kadmioa eta nikela), legez PM₁₀-etako elementu horietarako ezarritako mugaren azpitik zeuden. Benzo(a)pirenoaren batez besteko maila, legez araturiko bakarra, mugaren azpitik zegoen aztertutako 4 udalerrietan. Aztertutako HAPen balioak, oro har, handiagoak izan ziren kontrol-eremuan (Ordizia eta Urretxu), eraginpeko eremuan (Lasarte eta Usurbil) baino. PCDD/F eta PCB-ei dagokienez, eraginpeko eremuko mailak handiagoak izan ziren kontrol-eremukoak baino, bai modu aktiboan egindako neurketekin (5.35 fgTEQ/m³ Usurbilen eta 2.75 fgTEQ/m³ Urretxun), bai modu pasiboan egindako neurketekin (14.41 fgTEQ/m³ Usurbilen eta 3.79 fgTEQ/m³ Urretxun).

Ikerketa-taldeak 2017ko irailetik ditu emaitzak, hori dela eta konparaketa bat egin zen GIGEBI martxan jarri aurreko egoeraren eta martxan jarri ondorengo egoeraren artean. Aztertutako 4 udalerrietan, PM_{2.5} partikulen mailak esanguratsuki murriztu ziren GIGEBI martxan jarri ondorengo aldian. GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldietako metalen eta HAPen batez besteko balioak alderatzen direnean, beherakada orokorra ikusten da aztertutako 4 udalerrietan. Beherakadarik handiena Ordizian ikusi da, non metal guztien kontzentrazioak nabarmen murriztu diren, bereziki Cr, Mn, Fe, Co, Ni eta Cu-aren kasuan, zeinen kontzentrazioak erdia baino gehiago jaitsi diren. GIGEBI martxan jarri ondorengo aldian kontzentrazio altuagoak dituen metala selenioa da Usurbilen, nahiz eta aldi horretako kontzentrazio maximoa eta batez besteko kontzentrazioa, laneko biztanleriarentzat ezarritako eguneko ingurumen-esposizio muga-balioa (0.1 mg/m³) baino 1.8x10³ eta 7.3x10⁴ aldiz txikiagoa izan.

PCDD/F+dl-PCB mailak jaitsi egin dira GIGEBI martxan jarri ondorengo fasean, martxan jarri aurreko fasearekin alderatuta, bai eraginpeko-eremuan (martxan jarri aurreko aldia; MG (%95KT): 16.34 (14.17; 18.86) fg TEQ/m³ vs ondorengo aldia 5.35 (4.58; 6.26) fg TEQ/m³), bai kontrol-eremuan (aurreko aldia; MG (%95KT): 5.46 (4.46; 6.70) fg TEQ/m³ vs ondorengo aldia 2.79 (2.41; 3.22) fg TEQ/m³). Aztertutako bi zonak alderatuz gero, eraginpeko-eremuko mailak (Usurbil) kontrol-eremukoak (Urretxu) baino altuagoak izaten jarraitzen dute GIGEBI martxan jarri ondorengo aldian (MG (%95KT): 5.35 (4.58; 6.26) fg TEQ/m³ Usurbilen vs. 2.79 (2.41; 3.22) fg TEQ/m³ Urretxun). Kontzentrazio mailak jaitsi egin dira bi zonaldeetan GIGEBI martxan jarri aurreko aldiarekin konparatuta, eta beherakada hori handiagoa izan da eraginpeko-eremuan.

1. SARRERA

Gaur egun, giza osasunerako ingurumen-arriskurik garrantzitsuena airearen kutsadura da eta europarrek bigarren ingurumen-arazotzat hartzen dute, klima-aldaketaren ondoren (European Commission, 2017). Europako Ingurumen Agentziaren arabera, kutsadura atmosferikoak osasunerako arrisku nabarmenak planteatzen jarraitzen ditu Europan, gaixotasun kronikoak eta heriotza goiztiarrak eraginez. 2019an munduko biztanleen % 99 inguru Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) gomendaturiko aire-kalitatearen mailaren gainetik zeuden lekuetan bizi zen. 2019ko estimazioen arabera, mundu guztiko hiri- eta landa-eremuetako kutsadura atmosferikoak 4,2 milioi heriotza goiztiar eragiten ditu. Hilkortasun hori, batez ere, materia partikulatu finaren eraginpean egoteagatik gertatzen da, eta horrek gaixotasun kardiobaskularrak eta arnasketakoak eragiten ditu, baita minbiziak ere. OMEren ustez, 2019an kutsadura atmosferikoari loturiko heriotza goiztiarren %37, gutxi gorabehera, kardiopatia iskemikoak eta istripu zerebrobaskularrak eragindakoa zen; heriotzen %18 eta %23, berriz, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoak eta arnas infekzio akutuoak eragindakoa, eta heriotzen %11, biriketako minbiziak eragindakoa (OME, 2023). Airearen kutsadurak biztanle guztiei berdin eragiten badie ere, zenbait taldek joera handiagoa dute ondorioak izateko, haurrak, adinekoak, haurdun dauden emakumeak eta osasun-arazoak dituzten pertsonak barne. Ebidentzia askok iradokitzen dute maila sozioekonomiko baxueneko pertsonen airearen kalitate txarragoko inguruneetan bizitzeko joera dutela. Gainera, pertsona behartsuenek, askotan, osasun txarragoa dute eta kalitate handiko zerbitzu medikoak eskuratzeko aukera txikiagoa, airearen kutsadurarekiko zaugarritasuna handituz (EEA, 2018; OME, 2019).

Airearen kutsadura eta horrek osasunean eta ingurumenean dituen eraginak murrizteko neurri eraginkorrak ezartzeko, aldeztu aurretik kutsadura-iturriak ezagutu behar dira, denboran zehar atmosferan kutsatzaileak garraiatzeko eta kimikoki eraldatzeko modua, eta kutsatzaileek gizakiei ekosistemetan eta kliman nola eragiten dieten.

Kutsatzaile atmosferikoen sailkapenean, primarioak eta sekundarioak daude. Primarioek foku igorletik zuzenean igortzen dute atmosferara, hala nola beruna, karbono monoxidoa, sufre oxidoak, nitrogeno oxidoak, hainbat hidrokarburo, besteak beste, hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (HAP) eta materia partikulatua (PM) edo PCDD/Fak. Sekundarioak, berriz, atmosferako prozesu kimikoen bidez eratzen dira, kutsatzaile primarioengan edota atmosferako espezie ez-kutsatzaileengan eraginda; esaterako, ozono, peroxiazetilnitrato, sulfato, nitrato edota azido sulfurikoarengan. Kutsadura-iturriak finkoak izan daitezke (energia-instalazioak,

industria kimikoak, petrolio-findegia eta lantegiak), edota mugikorak, hots, garraio mota guztiak eta ibilgailu automotorrak (EEA, 2023a).

1.1. Material partikulatua (PM)

Material partikulatua (PM) partikula mikroskopiko solido eta likido guztiak dira, gizakiak eragindakoak edo naturalak, airean eskegita geratzen direnak denbora jakin batean. Primario eta sekundario gisa sailkatzen dira. Primarioak hainbat iturritatik zuzenean atmosferara igortzen direnak dira (adibidez, auto eta kamioien ihes-hoditik ateratzen den ke beltza, kaleetako hautsa). Hiri-eremuetan, iturri nagusia zirkulazioa izaten da, eta, ondoren, industria-jarduera (Almeida et al., 2020; Querol et al., 2008). Sekundarioak atmosferan bertan sortzen direnak dira, aitzindari deituriko materia gaseosoetako erreakzio kimikoen ondorioz. Partikulen gas aitzindari nagusiak sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidoa (NO_x), konposatu organiko lurrunkorrak (KOL) eta amoniakoa (NH₃) dira. Batez ere, sulfato eta nitrato partikulek eratzen dituzte, eta partikula eskegi sekundario organikoak ere bai, konposatu organikoen oxidazio fotokimikotik sortuak. PM-a substantzia kimiko organikoek, hautsak, kedarrak eta metalen nahasketa konplexu batek osatzen du. PMen osagai nagusiak sulfatoak, nitratoak, amoniakoa, sodio kloruroa, kedarra, hauts mineralak eta ura dira (Lakovides et al., 2021). PM iturri garrantzitsuenak aireko eta lurreko garraioa, industria, berogailuak eta nekazaritza dira (van der Werf et al., 2010). Nahiz eta Europan trafikoa den PM_{2.5}-ari ekarpen handiena egiten dion jarduera (Saraga et al., 2021; Karagulian et al., 2017).

10 mikroi edo gutxiagoko diametroa duten (\leq PM₁₀) partikulak biriketan sartu eta sakon-sakonean gera daitezkeen arren, badira osasunerako are partikula kaltegarriago batzuk, 2,5 mikroi edo gutxiagoko diametroa dutenak (\leq PM_{2.5}), alegia. PM_{2.5} partikulak mintz albeolo-kapilarra igaro eta odol-sisteman sartu daitezke (Schwartz eta Neas, 2000). Partikulen eraginpean egonez gero, bihotz-hodietako eta arnasketaren gaixotasunak garatzeko arriskua dago, bai eta biriketako minbizia garatzeko ere. Lotura kuantitatibo estua dago partikula txikien (PM₁₀ eta PM_{2.5}) kontzentrazio handiaren eraginpean egotearen eta eguneko hilkortasuna eta morbiditatea igotzearen artean, baita epe luzekoa ere (Ali et al., 2019; Burnett et al., 2014; Schwartz et al., 2018).

Ebidentzia zientifikoaren arabera, epe laburrean PM₁₀en eraginpean egoteak arnas osasunari eragiten dio (Pascal et al., 2014); hala ere, epe luzean PM_{2.5}en eraginpean egonez gero, hiltzeko arrisku handiagoa dago PM₁₀en eraginpean egonda baino (Zanobetti eta Schwartz,

2009). Epe luzean PM_{2.5}en eraginpean egotea bihotz-biriketako gaixotasunak eragindako heriotza-arriskua areagotzearekin lotzen da, eta uste da heriotza-tasa %6 eta %13 bitartean igotzen dela, PM_{2.5} partikulak 10 µg/ m³ igotzen diren bakoitzeko (Strak et al., 2021; Pope et al., 2018; Beelen et al., 2008; Krewski et al., 2009).

Aire-kalitateari buruzko Europako egungo zuzentarauak urteko batez besteko 25 µg/m³ kontzentrazio objektiboa zehazten du. Balio horrek neurri handian gaintitzen ditu OMEk segurutzat jotzen dituen mailak; 2021. urtetik, urteko batez besteko 5 µg/m³-ko erreferentziako kontzentrazioa zehazten du. Europan, airearen kalitatea monitorizatuta dagoen zenbait lekutan, gaintitu egiten da PM_{2.5} partikulen 25 µg/m³-ko muga-balioa. Gainera, hiri-eremuetako PM_{2.5} kontzentrazioak, askotan, OMEk emandako erreferentzia-balioak baino askoz handiagoak izan ohi dira (EEA, 2023b).

1.2. Metalak

Errekuntza-prozesuetan, industria-jardueretan eta trafikoan sortutako isuriak dira atmosferarako metalen iturri antropogeniko garrantzitsuenak. Prozesu industrialen hobekuntzei eta emisioak murrizteko teknologiei esker isurketak nabarmen murriztu badira ere, osasunerako eta ingurumenerako arriskuak garrantzitsuak dira oraindik.

Hiri-hondakinak balorizatzeko instalazioek (HHBI) isuritako kutsatzaileen artean daude metal astunak, hala nola beruna (Pb), kadmioa (Cd), kromoa (Cr) eta merkurioa (Hg) (Chang et al., 2003). Partikulei (PM) itsatsitako metal hauek distantzia luzeetara garraiatu daitezke eta ingurumenean iraun dezakete, airean, uretan eta lurrian zirkulatuz denboran zehar. Arsenikoak, kadmioa, nikela eta beruna kantzerigeno (IARC) gisa sailkatuta daude, eta airearen kalitatea hobetzeari buruzko 102/2011 Errege Dekretuak arautzen ditu.

Europan arsenikoaren, kadmioaren, nikelaren, berunaren eta merkurioaren isurketak gutxituz joan dira 2000. urtetik. Horren ondorioz, aireko kontzentrazioak eta kutsatzaile-jalkinak gutxitu egin dira, batez ere industrialdeetan. 2000-2017 aldian aireko metal toxikoen isuriak nabarmen murriztu diren arren, oraindik ere epe luzerako arriskuak daude gizakien osasunerako eta ekosistemetarako, lurzoruetan, sedimentuetan eta organismoetan metatutako metalen ondorioz (European Commission, 2017). Beraz, beharrezkoa da metal toxikoen isuri atmosferikoak murrizteko ahaleginekin jarraitzea, industrietan hobekuntzak ezarri eta ahal den neurrian metal toxikoen erabilera murriztuz.

Metal astunak asko erabiltzen dira ekoizpen metalurgikoan, beste metal batzuekin, hala nola kobre, zink, burdin, manganeso, bario, kobalto eta banadioarekin batera. Horregatik, metalurgia-industria indartsua den lekuetan, hala nola lan honen azterketa-eremuan, atmosferako PM_{2.5} partikulek metal horiek daramatzate loturik (Lertxundi et al., 2010). Querol eta kolaboratzaileen azterlan batean (2007) ikusi zen nahiko handiak zirela Cr, Mn, Zn, Mo, Se, Sn eta Pb mailak altzairutegien eraginpean zeuden eremuetan. Gainera, V, Cr eta Ni mailak ere handiak ziren altzairu herdoilgaitza egiten zuten industrien eraginpean zeuden eremuetan. Trafikoa ere metalen iturri garrantzitsua da, batez ere hiriguneetan, eta horien artean daude Ni, Cu, Cr, Pb, Zn eta Hg (Johansson et al., 2008). Manganesoaren igorlea ere bada, fuel-olioa ke-gehigarri inhibitzaile gisa eta gasolinetan antidetonatzaile gisa gehitzen baita (Badia et al., 2021). Paladioa bihurtu katalitikoetan erabiltzen da, autoen ihes-gas kaltegarriak murrizteko (McCarthy et al., 2021).

Komunitate zientifikoak asko aztertu ditu metal astunak, kutsatzaile horien eraginpean egoteak gizakion osasunean eragiten dituen ondorio kaltegarriak direla eta (Hou et al. 2019; Jan et al., 2015). Biodegradagarriak ez direnez, biometatzeko joera dute izaki bizidunetan eta, beraz, elikatze-katean (Briffa et al., 2020). Populazio orokorra metalen eraginpean dago, batez ere elikagaiak eta ura hartuz, eta, neurri txikiagoan, airea arnastuz eta horiek dituzten elementuekin kontaktu zuzena eginez.

Metalen esposizio kronikoak organo eta sistema desberdinen funtzionamendua alda dezake, (Sivulka, 2005; Centeno et al. 2006; Barregard et al., 2010; Argos et al., 2010; Tolins et al., 2014; Quansah et al., 2015; Wu et al., 2016; Järup eta Vila-kesson, 2019). Cd, Ni eta Hg-k arnasketa- eta giltzurrun-sisteman dute eragina, As, Pb eta Hg-k ugalketa-sisteman, Pb-k gibelean eta giltzurrunean eta Cd-ak sistema eskeletikoan. Hg, As eta Ni gaixotasunekiko esposizioak gaixotasun kardiobaskularrak izateko arriskua ere areagotu dezake (Karagas et al., 2012). As eta Ni esposizioak larruazaleko lesioak eta ukipen-dermatitisa eragin ditzake (Duda Chodak, 2008). Gainera, As-arekiko esposizioa diabetesarekin ere lotu da (Sung et al., 2015). Pb eta Hg metal neurotoxikoak dira, eta garunari eta nerbio-sistemari eragiten diete batez ere.

1.3. Hidrokarbuo Aromatiko Poliziklikoak (HAPak)

Hidrokarbuo aromatiko poliziklikoak (HAPak) konposatu kimikoen multzo handia dira eta karbono eta hidrogeno atomoz osatuta egotea dute ezaugarri, hain zuzen ere, bospasei karbono atomodun eraztunak osatuz (Sakshy eta Haritas, 2020). Ikatz, olio, gas, egur, etxeko hondakin,

eta, oro har, jatorri organikoko substantziak erabat ez erretzean sortzen dira (Abdel-Shafy eta Mansour, 2016). Modu naturalean egoten dira petroliotan, ikatzetan, mundrun-deposituetan, eta erregai fosil nahiz biomasa erabiltzetik sortutako produktuetan (Abdel-Shafy eta Mansour, 2016; Shen et al., 2020). Konposatu horiek gehienak lurrunkorrak dira eta, isurpen-fokutik distantzia luzeetara joan daitezke partikula finetan adsorbaturik (Patel et al., 2020).

HAPen isurpen-iturri nagusiak zirkulazioa eta hiri-eremuetako berogailuak dira eta eremu industrialetan, industria bera ere bai. Gipuzkoan egindako azterlan batean ikusi zen HAPen isurpen-iturri nagusia industria zela, nahiz eta zirkulazioaren erasana ere ezin bazter zitekeen (Villar-Vidal et al., 2014).

Kantzerigeno izan daitezkeen 100 HAP inguru identifikatu dira. Indarrean den araudiak muga-balioak jasotzen ditu benzo(a)pirenorako (BaP), gizakientzat kantzerigenotzat sailkatu baitu (1. multzoa) Minbiziaren Ikerketarako Nazioarteko Agentziak (IARC). Hala ere, aireko hainbat HAPen nahasketa aldatu egiten da urtaroaren eta geografaren arabera; beraz, Europako Batzordeak egoki jo du beste HAP konposatu batzuk ere aldiro-aldiro monitorizatzea (Europako Batzordea, 2001). Aireko BaP-ren kontzentrazio gehienak altuak dira, etxeko ikatzaren eta egurraren errekontzatik datozen isurketengatik, nahiz eta zenbait herrialdetan (batez ere Europako hegoaldean) nekazaritzako hondakinak erretzearen ekarpena ere garrantzitsua den (EEA, 2017).

1.4. Dioxinak eta furanoak

Dioxinak eta dioxina-jarduera daukaten konposatuak (“dioxin-like” ingelesez) konposatu organiko iraunkorren (POP ingelesez) taldean sartzen diren substantziak dira. Konposatu triziklikoak dira. Bi bentzeno-eraztunez osatuta daude, eta kloro-elementuak daukate eraztunetan. Eraztun aromatikoetako klorazio-mailari eta kloro-atomoen kokalekuari esker, dibenzoparadioxina polikloratuen (PCDD) 75 kide eta dibenzofurano polikloratuen (PCDF) 135 kide zehazten dira (EFSA, 2018).

- Dibenzo-p-dioxina polikloratuak (PCDD), edo dioxinak. PCDDak dibenzo-p-dioxinen deribatuak dira. PCDDen 75 kide daude, kloro-atomoen kopuru eta kokapen desberdinekin. Horietako zazpi konposatu bereziki toxikoak dira, 2,3,7,8-TCDD; 1,2,3,7,8-PeCDD; 1,2,3,4,7,8-HxCDD; 1,2,3,6,7,8-HxCDD; 1,2,3,7,8,9-HxCDD; 1,2,3,4,6,7,8-HpCDD eta OCDD.

- Dibenzofurano polikloratuak (PCDF) edo furanoak. PCDFak dibenzofuranoen deribatuak dira. 135 isomero daude, eta hamarrek dioxinen antzeko propietateak dauzkate: 2,3,7,8-TCDF; 1,2,3,7,8-PeCDF; 2,3,4,7,8-PeCDF; 1,2,3,4,7,8-HxCDF; 1,2,3,6,7,8-HxCDF; 2,3,4,6,7,8-HxCDF; 1,2,3,7,8,9-HxCDF; 1,2,3,4,6,7,8-HpCDF; 1,2,3,4,7,8,9-HpCDF eta OCDF.

Dioxina eta furanoak konposatu oso egonkorak dira tenperatura handitan, oso lipodisolbagarriak, disolbagaitzak uretan eta biodegradatzen zailak (Gworek et al., 2013). Ezaugarri fisiko-kimiko horiek direla eta, konposatu hauek izaki bizidunetan biometatzeko ahalmen handia dute, zehazki gantz-ehunetan, eta beraz, elikadura-katean sartu eta metatu egiten dira (Jeno et al., 2021; Szajner et al., 2021).

Errekuntza da dioxina eta furanoen ingurumen-iturri nagusia (Antunes et al., 2012). Errekuntza-prozesuetan sortzen dira, besteak beste: hondakinak erraustea (adibidez, udal-hondakin solidoak, araztegiko lokatza, medikuntza-hondakinak eta hondakin arriskutsuak), hainbat erregai erretzea (adibidez, ikatza, egurra eta petrolio-deribatuak), tenperatura handiko beste iturri batzuk (adibidez, zementu-labeak) eta kontrolik gabeko errekuntza-iturriak (adib. basoko suteak, sumendien erupzioak, eraikinetako suteak eta etxeke egurra) (Kaleka eta Thind, 2020). Galdategi eta findegia ere dioxinen eta furanoen iturri dira. Burdina-minerala bereizteko, altzairua egiteko eta txatarra berreskuratzeko prozesuetan ere dioxina sortzen da. Galdaketa sekundarioak eta ferrosoak ez diren metalen finketak (aluminio, kobre, berun eta zinkarenak) ere sor ditzake dioxinak eta furanoak, organiko ez-puruak erretzen direlako (plastikoa, pinturak eta disolbatzaileak) galdatze-prozesuetan erabilitako metaletan eta klorodun produktu kimikoetan (sodio kloruroa eta potasio kloruroa) (Wu et al., 2020; Wang et al., 2016; Aittola et al., 1992; EPA, 1987, 1997). Gainera, burdina galdatzen eta kokea ekoizten ere dioxinak isurtzen dira, kloroa eta beste konposatu organiko batzuk sortzen direlako hautsaren eta beste fabrikazio-prozesu batzuetatik birziklaturiko hondakinen bidez (Lahl, 1993, 1994; Lexen et al., 1993; Rappe, 1991). Kimika-industriari dagokionez, papera egiteko egur-mamia zuritze prozesuan, kloroa eta kloro-deribatuak fabrikatzean eta produktu kimiko organiko halogenatuak fabrikatzean ere (pestizida batzuk, esaterako) dioxinak sortzen dira.

1.5. Bifenilo polikloratuak (PCBak)

PCBak edo bifenilo polikloratuak konposatu organiko iraunkorrak dira, eta PCDD/Fak bezalaxe, errekuntza erabatekoa ez den prozesuetan askatzen dira kloroa dagoenean. Bi bentzeno-eraztunez osatzen dira, non kloro-atomoz ordez daitezkeen hidrogeno-atomo bat edo

gehiago (EFSA, 2018). 209 kide daude, 2 kategoriatan sailkatuta, dauzkaten propietate toxikologikoen arabera: horietako 12k dioxinen antzeko propietate toxikologikoak dauzkate, eta “dioxina-jardueradun” PCBak deitzen zaie (“dioxin-like” PCB, ingelesez, edo dl-PCB): PCB-77; PCB-81; PCB-126; PCB-169; PCB-105; PCB-114; PCB-118; PCB-123; PCB-156; PCB-157; PCB-167 eta PCB-189. Gainerako PCBek ez daukate horrelako toxikotasunik (PCB non dioxin-like). Gaur egun herrialde gehienetan PCBak sortzea debekatuta egon arren, historikoki asko erabili direnez (isolatzaile dielektrikotzat, sugarraren moteltzailatzat, eranskailu, tindu, pintura, pestizida eta materialen hainbat estalgarritan), oraindik ingurumenera isurtzen ari dira, PCBdun produktuak erabiltzeagatik, konposatu horiekin kutsaturiko lekuetako isurpenengatik, eta errekuntza-prozesuengatik (Erickson, 1997; Hutzinger et al., 1974).

1.6. Baliokidetasun toxikoen faktoreak (TEF) eta baliokide toxikoak (TEQ)

Dioxinen nahasketen toxikotasun osoa ebaluatzeko (PCDD/PCDF eta dl-PCBak), “baliokidetasun toxikoen faktore” (TEF ingelesez) izenekoak ezarri dira (1.1 ERANSKINA). Horien bidez, toxikotasun gutxienerako dioxin-like konposatuak kide toxikoenaren (2,3,7,8-TCDD) kopuru baliokidea aintzat hartuta adierazten dira, eta 1eko balioa esleitzen zaio arbitrarioki kide toxikoenari; beraz, erreferentziatzat erabiltzeko konposatua izango da, gainerako dioxinei toxikotasun-maila esleitzeko.

Dioxinen antzeko substantzien nahasketen toxikotasun osoa adierazteko, baliokide toxikoak (TEQ) erabiltzen dira; balio hori kalkulatzeko, kide bakoitzaren ($TEF_{i,j}$) TEFa nahasketan duen kontzentrazioaz biderkatzen da, eta horien baturak emango du balioa. Hauxe da formula:

$$TEQ = \sum (TEF_i PCDD * C_i PCDD + TEF_j PCDD * C_j PCDD + \dots)$$

TEQ kontzeptuak aukera ematen du kideen nahasketen toxikotasuna konparatzeko Ah (aryl hydrocarbon ingelesez) hartzaile zelularrekiko elkarreraginaren ondorio kaltegarrien kasuan, eta ez ditu kontuan hartzen dioxinen konposatuek edo dioxinen antzekoek eragin ditzaketen beste efektu toxiko batzuk. Gaur egun, hiru baliokide toxikoko faktore daude (TEF). Ipar Atlantikoko Itunari buruzko Erakundeak (NATO) 1989an (NATO/CCMS, 1988) sortutako eta gerora eguneratutako I-TEQak. OMEk 1998an sortutako OME-TEQak (van den Berg et al., 1998; 2006) eta ondoren 2005ean eguneratutakoak (van den Berg et al., 2006). I-TEQak OME-TEQak baino %10 inguru handiagoak dira. TEQen emaitzak kalkulatzeko erabili den TEF balioaren arabera izango dira. Horrela, erabilitako TEF balioaren arabera, dioxinen kontzentrazioak I-TEQen edo OME-TEQ₁₉₉₈ eta OME-TEQ₂₀₀₅etan adieraz daitezke.

1.7. Egungo legedia

Espanian, aire-kalitateari buruz indarrean dagoen legedia urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretua da, airearen kalitatea hobetzeari buruzkoa. Araudi horretan daude ezarrita osasuna babesteko muga-balioak, hain zuzen ere atmosferako kutsatzaile jakin batzuk eduki beharrekoak, besteak beste: PM₁₀ eta PM_{2.5} material partikulatuak, berunak, nikelak, artsenikoak, kadmioak eta benzo(a)pirenoak PM₁₀ean. Hauek dira araudiak ezarritako muga-balioak:

1. Taula. 102/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa

PM ₁₀			
	Batezbestekorako aldia	Balioa	Muga-balioa betetzeko eguna
Urteko muga-balioa	Urte zibil 1	40 µg/m ³	2015eko urtarrilaren 1a
PM _{2.5}			
	Batezbestekorako aldia	Balioa	Muga-balioa betetzeko eguna
Urteko muga-balioa (I. fasea)	Urte zibil 1	25 µg/m ³	2015eko urtarrilaren 1a
Urteko muga-balioa (II. fasea)	Urte zibil 1	20 µg/m ³	2020ko urtarrilaren 1a
Beruna			
	Batezbestekorako aldia	Balioa	Muga-balioa betetzeko eguna
Urteko muga-balioa	Urte zibil 1	0.5 µg/m ³	2015eko urtarrilaren 1a
Artsenikoa, kadmioa, nikela eta benzo(a)pirenoa			
	Batezbestekorako aldia	Balio objektiboa PM ₁₀ -ean	Muga-balioa betetzeko eguna
Artsenikoa (As)	Urte natural 1	6 ng/m ³	2013ko urtarrilaren 1a
Kadmioa (Cd)	Urte natural 1	5 ng/m ³	2013ko urtarrilaren 1a
Nikela (Ni)	Urte natural 1	20 ng/m ³	2013ko urtarrilaren 1a
Benzo(a)pirenoa (B(a)P)	Urte natural 1	1 ng/m ³	2013ko urtarrilaren 1a

2. Taulan As, Cd, Cr, Pb, Mn, Ni eta V-rako mugak agertzen dira, 2021eko irailaren 22an eguneratutako airearen kalitaterako OMEren gidaren arabera.

2. Taula. Airearen kalitaterako OMEren gidaren mailak

Kutsatzailea	Gomendatutako muga-balioa
PM _{2.5}	5 µg/m ³
PM ₁₀	15 µg/m ³
Artsenikoa (As)	6.6 ng/m ³ 10 ⁻⁵ arriskurako
Kadmioa (Cd)	5 ng/m ³
Kromoa (Cr)	0.25 ng/m ³ 10 ⁻⁵ arriskurako
Beruna (Pb)	0.5 µg/m ³
Manganesoa (Mn)	150 µg/m ³
Nikela (Ni)	25 ng/m ³ 10 ⁻⁵ arriskurako
Banadioa (V)	1 µg/m ³

PCDD/F eta PCBei dagokienez, ezarri gabe daude konposatu horietarako immisioko muga-balioak. Hala ere, isurpen-balioak ezarrita daude, araudi honetan: 94/67/CE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1994ko abenduaren 16koa, hondakin arriskutsuak errausteari buruzkoa. Arau horren arabera, gutxienez 6 orduko eta gehienez 8 orduko laginketa-aldi batean neurturiko batez besteko balio guztiek ezin izango dute gainditu 0,1 ng/m³-ko (I-TEQ) muga-balioa. Muga-balio hori neurtzeko, dioxina eta furanoen kontzentrazio indibidualak batzen dira, isuritako konposatuei dagokien TEF aplikatuta.


2. HELBURUAK

Ikerketa-ildo honen helburua GIGEBiko eraginpeko-eremuan (Usurbil eta Lasarte) eta kontrol-eremuan (Urretxu eta Ordizia) airearen kalitatea eta bilakaera ebaluatzea da, $PM_{2.5}$, partikula hauei loturiko metalak eta HAPak, eta dioxina, furano eta PCBak kuantifikatuz.

3. METODOAK


3.1. Azterketa-eremua

Azterlana Gipuzkoako bi eremutan egin zen (1. Irudia): bata, GIGEBIren eraginpeko edo esposiziopeko eremuan (2. Irudia), eta, bestea, kontrol-eremua edo GIGEBIren eraginik gabeko eremuan (3. Irudia). Lehenengo eremuan Usurbil eta Lasarte udalerrriak aukeratu ziren; bigarreanean, berriz, Urretxu eta Ordizia.




1. Irudia. Azterketa-eremua.

1. ildoa: Aireko kutsatzaile atmosferikoekiko esposizioaren ebaluazioa



2. Irudia. Eraginpeko-eremua, Lasarte eta Usurbil.



3. Irudia. Kontrol-eremua, Ordizia y Urrtxu.


3.2. Aireko kutsatzaileen bilketa

Aire kaptadore aktiboak (DIGITEL) jarri ziren $PM_{2.5}$ eta PCDD/F eta PCBak biltzeko, bai eta PCDD/F eta PCBak biltzeko kaptadore pasiboak ere (4A, 4B eta 4C Irudiak).

Hargailuak, aire-kalitatearen puntu adierazgarrietan (inmisio-maila) jarri ziren, zeinaren eraginpean baitaude aztertu beharreko udalerrietako biztanleak, kutsatzaileen isuri-iturri zuzenak bazter utzita. Aire-hartzea galaraz zezaketen oztopo fisikorik gabeko lekuetan jarri ziren. Kokapenak:

- Lasarte: osasun-zentroko teilatu lauan ($43^{\circ}16'03''N - 02^{\circ}01'08''W$)
- Usurbil: Udarregi ikastolako teilatu lauan ($43^{\circ}16'22''N - 02^{\circ}03'03''W$)
- Ordizia: Jakintza eskolako lorategian ($43^{\circ}03'07''N - 02^{\circ}10'15''W$)
- Urretxu: liburutegiaren atzealdean ($43^{\circ}05'38''N - 02^{\circ}18'53''W$)

PM_1 , $PM_{2.5}$ eta PM_{10} neurtzeko erabilitako PALAS kaptadoreei dagokienez, ekipoak 2020ko azaroan jaso ziren eta 2020ko abenduaren 9an jarri ziren Urretxun eta Usurbilen (5A eta 5B Irudiak).



4. Irudia. Usurbilen instalatutako DIGITEL DHA-80 kaptadore aktiboa [A] eta PCDD/F eta PCB kaptadore pasiboak [B]. Urretxun jarritako DHA-80 kaptadore aktiboa eta PCDD/F eta PCB kaptadore pasiboak [C].



5. Irudia. PM_{10} , $PM_{2.5}$ eta PM_{10} partikulak kuantifikatzeko PALAS kaptadoreak, kontrol eremuan (Urretxu) [A] eta eraginpeko-eremuan (Usurbil) [B].

Aireko $PM_{2.5}$ ak egunero hartu ziren 2020ko ekainetik 2023ko iraila bitartean, Usurbil, Lasarte, Urretxu eta Ordiziako udalerrietan, bolumen handiko DIGITEL kaptadoreen bidez. Gainera, 2020ko abenduko hirugarren astetik, PM_{10} , $PM_{2.5}$ eta PM_{10} partikulen eguneroko datuak bildu ziren eraginpeko eremuan (Usurbil) eta kontrol eremuan (Urretxu), PALAS kaptadoreen bidez.

Aire-laginetan, aztarna-elementu hauek kuantifikatu ziren: artsenikoa (As), kadmioa (Cd), kromoa (Cr), kobrea (Cu), merkurioa (Hg), manganesoa (Mn), nikela (Ni), zinka (Zn), beruna (Pb), burdina (Fe), selenioa (Se), barioa (Ba), banadioa (V), kobalto (Co), zerioa (Ce) eta paladioa (Pd). Halaber, udalerrri bakoitzean, hilean 5 lagin hartu ziren Cr (VI)-a zehazteko.

